

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

316. 2023ko IRAILA

ADARBAKARRA
EZAGUTZEN



POSTONTZIA

✓ Zein gairi buruzko artikulua irakurtzea gustatuko litzaizuke Mailopen?

✓ Zure herrian edo talde eragilean datorren hilabeterako albisteren bat ba al duzue?

Bidali zure proposamena Mailopeko erredakzio taldera: mailope@labrit.net / 638 652 339.

ZUZEN ETA JATOR

BOTILA BAT ARDO ALA ARDO-BOTILA BAT?

Botila bat ardo esaten dugunean, ZENBAT ardo adierazten dugu, eta *ardo-botila bat* esatean, berriz, ZER.

Taberna batean *bi baso ur* eskatzen baditugu, egarria ase ahal izango dugu. *Bi ur-baso* eskatzen baditugu, berriz, tabernariak bi edalontzi huts aterako dizkigu.

Era berean, ez da gauza bera *botila bat xanpain* edanda lurrera erortzea, edo *xanpain-botila* batekin buruan jota jaustea.

Horrela bada, neurria adierazteko, eskema hau erabiliko dugu:

“zenbat + neurria + zer”

- Bi botila sagardo.
- Bost kilo sagar.
- Sei metro soka.
- Bi kopa ardo gorri.
- Hiru dozena porru.
- Litro bat olio.

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandezena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza, Haritz Larrageta eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Xabi Sotil, Ane Ubegun, Juan Barriola, Lekunberriko Udala, Nahia-
ra Juanena, Ibai Tolosa, Ares H.K., Ainhoa Beraza eta Labrit.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 -
mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Oier Zuñiga

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT


MULTIMEDIA

02 ▶ ZUZEN ETA JATOR

04 ▶ KUXKUXEAN Iraileko zorion agurrak

08 ▶ ELKARRIZKETA

Maite Aizpurua Olaizola



12 ▶ BATZARRE

14 ▶ ERREPORTAJEA



Mugimenduari erreparatzeko habia

18 ▶ ERREPORTAJETXOA

Cederna Garalur-eko ekintzailletza zerbitzua

20 ▶ KULTURA

25 ▶ MAITE DITUT MAITE Gaztelu eta Txurregi

26 ▶ KIROLA

28 ▶ PLAZATIK PLAZARA

Betiko Amairu, inoiz baino hobeki



31 ▶ AGENDA





Eider Azpiroz Arrizurieta
Abuztuak 2, 9 urte.
Zorionak printzesa! Egun eder bat pasa dezazula zure urtebetetze egunean! Muxu asko etxekoan partetik!



Aratz Apezetxea
Zorionak Aratz, politta! 7 urte bete dituzu jada. Askok disfrutatu zure egunaz. Muxu handi bat zure familian partetik



Enara Iribarren Irastorza
Abuztuaren 14an, 4urte.
Zorionak potola eta jarraitu alaitasun horrekin!! Muxu bat etxeko guztin partez!



Alaitz Leoz Urbizu
Abuztuaren 16an, 5 urte.
Zorionak Alaitz!!! Eskerrik asko 5 urte eder hauetan gurekin egoteagatik. Ikaragarri maite zaitugu! Muxu potolo bat aita, ama, Amalur eta Naroaren partez.



Naira Uranga Gaztelumendi
Irailaren 18an, 4 urte.
Zorionak printzesa!! Beti orain bezain politta eta alai jarrai dezazun! Muxu pila etxekoan partez, asko maite zaitugu.

Santi eta Josu
Irailaren 13an
Santik eta Josuk urteak egiten dituzte. Zorionak, Santi eta Josu!! Muxu haundi bat etxekoan partez.



Aimar Ruiz Zabala
Zorionak Aimar!! 7 urte jada gure etxeko pottokoak!!! Ondo-ondo pasa zure egunean eta muxu handi-handi bat maite zaitugun guztion partetik!!!



Ane Elordi Sanz
Abuztuaren 2an, urte bat.
Zorionak etxeko txikiari zure lehen urtebetetzean. Muxu haundi bat etxeko guztien partetik.



Aratz Etxarri
Irailaren 23an, 7urte.
ZORIONAK ARATZ!!
Ongi ospatu zure eguna!! Muxu haundiat etxekoan partetik!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



LAPURRETA LEKUNBERRIKO FUTBOL ZELAIAN

Beti Kozkor - Beti Onak futbol partida Atarrabian jokatu behar izan da Lekunberriko futbol zelaian 200 metro kable lapurtu zituztelako eta, ondorioz, argindarrik gabe geratu zirelako bertan.



MAILOPE BERANDU BANATU DA IRAILEAN

Erredaktorearen baja dela eta, Mailoperen iraileko zenbakia ohi baino beranduago bukatu, inprimatu eta banatu da. Barka ezazue, mesedez, atzerapena.




MAILOPEK DIRULAGUNTZA JASOKO DU

Euskarabideak bilakaera teknologikorako eta eraldaketa digitale-rako 27.300 euroko diru-laguntza emango dio Mailope elkarteari. 246.500 euro esleitu ditu institutu nafarrak hainbat hedabideren artean.

► Xabi Sotil (Betelu)



*Uda garaia etorri dela
nahiz ta eguzki gutxi izan (bis)
Baina halere izan ditugu
freskatu beharra presan
ederki pasa degula denok
gure herriko festetan*



MILA ESKER, JONAN!

Aspaldi etorri zen Jonan gure bailarara, 90eko hamarkadan. Etorri zenetik ez zuen zalantzarik izan bere tresneria, musika munduan zuen jakinduria eta kontaktuak Araitz eta Beteluko Euskara Batzordearen eskura jartzeko.

Urtez urte, Kultur Aste ezberdinetan, Jonanen laguntza izan dugu, bai tresnaren bat behar izan dugunean, bai eta bere eskutik etorri izan diren musikari eta talde askorekin lotura egin behar zenean. Gehienetan esker onaren truke, bailara honetan izan dugun bere eskuzabaltasun eta umiltasunaren adierazle.

Orain, gure artetik joan denean, agian Jonanekin zorretan geratu gara; hortaz, idatzi honen bitartez, Jonanek emandako laguntza guztiarekin Araitz eta Beteluko Euskara Batzordea oso eskertua dagoela adierazi nahi dugu, bere familiak eta ingurukoek jakin dezaten.

ARAITZ ETA BETELUKO EUSKARA BATZORDEA


NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL®
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

amairu bar
ETIKO PIZZAK,
KOPA BERETIAK
948504352



Antsoñea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)



IORTIA CLINICA DENTAL · HORTZ-KLINIKA
Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz

OSABEN ALTZOA

Mende erdi pasatxo eta lagunen artean "erdie in deu!". Erdia baino gehixeago segur aski baina oroitzapenak eta bizipenak gogoan izateko nahikoak.

Denetik izan da, bizitzaren legez, gozoak ugari eta garratzak urri. Azken hauek garratzak benetan! Eta bai, batzuetan zein besteetan zuek izan zaituztet alboan, bai zuek, nire hiru osabak. Eta hirurak, nire bizitzako hiru garairen parte eta ardatz.

Hautzaroan gure etxeko sukaldeko bazkariak ditut gogoan osaba, bazkal orduko elkarrizketak, zure laneko gorabeherak... Zenbat pasadizo! Eta nola ez, zure anaia gaztearen barrenean kabituz ezineko haizeen exhibizioa. Gure etxeko sukaldeko atea hitz egingo balu!

Asteburuetan zure etxean apopilo. Zain egoten nintzen zure eskola garaiko istorioak entzuteko. Larunbat eguerdian zure bi anaia gazteak "zulotik" bueltan, leiho parean txorakeriaren bat ahoan eta zu haien atzetik lasterrean eta bai haiek eta bai gu barrez lehertu beharrean. Zeinen ongi pasatzen nuen, osaba!

Nerabezaroaren sarreran zure etxeko epela ezagutu nuen, osaba. Bertan ikasi nituen laguntasunaren eta auzolanaren esanahia. Etxea zaharberritzen eta ukuiluan, atondutako mahaiaren bueltan mokadua lagun artean, eguna lanean pasa ostean. Duela gutxi begiztatu ditut gazte bizardun haien argazkiak. Zeinen giro goxo eta alaia!

Zure etxean pasa nituen lehen parranden abentura eta ajeak. Momentu ahaztezinak benetan!

Bizitzak garratzetik jo zuenean eta lehen zaplada lehorra jaso nuenean, hankak dardarka, zuri deitu nizun, osaba. Eta hortxe etorri zinen isil-isilik, zure legez. Eta hortxe sentitu nituen beste behin, zure sentiberatasun eta bihotz handia. Zenbat esker on!

Bizitzari berriz ere goxotasuna aurkitu nahian, zure etxeko sukaldeko su-baxua hartu nuen babesleku, osaba. Ni asteburu zain zuenera joateko eta zer nolako pazientzia zuena! Errege bezperako afaria huts egiten ez nuen zita izaten zen. Lagunek elkarteren batean afaldu ohi zuten baina nik oso garbi nuen ez nuela zuen etxeko afarian huts egiteko asmorik. Askotan hiru osabak elkarren ondoan mahaiaren bueltan eta a zer poza eta sosegua nirea!

Bizitzak bigarren zaplada lehorra jo zidanean, egoerak gailenduta, zuregana jo nuen aholku eske, osaba eta beste behin, beso zabalkik hartu ninduzun.

Zenbat bizipen eta sentipen! Zortekoa izan naiz zuek hirurak nire bizitzaren parte izan zaretelako. Nire aldetik esker ona besterik ez dut, naizena zuei esker ere bainaizelako, nire parte ere bazaretelako.

Eskerrik asko bihotz-bihotzetik hiruroi.

Maite zaituztet.

Zuen iloba,

Aitziber Malkorra



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

“Paradisu natural honek nire proiektua guztiz eraldatu du”

Udalbiltzak ematen duen Geuretik Sortuak bekari esker Maite Aizpurua Olaizola izan da Larraunen eta Araitzen bere proiektua garatzen. Egonaldia, baina, herritarrei zerbait eskaintzeko ere baliatu du antzerkigile eta idazle zumaiarrak, eta idazketa tailerrak eskaini ditu udalerrri bietan.

Egonaldi hauetan ezagutu ez zaituenarentzat... Nor zaitugu?

Maite Aizpurua naiz eta, orain idazten nabilen arren, arte eszenikoetatik nator, horretan egin baitut azken lauzpabost urteotan nire kulturgintzako ibilbidea; interprete bezala, zuzendaritzan eta abar. Idazketa arte eszenikoaren prozesuaren parte bezala ulertzetik murgildu berri naiz idazketa hutsera. Banuen hori probatzeko gogoia eta, proiektu honekin, ekin diot.

Orain arte gidoigintzan ibili zara gehiago, ezta?

Ez nuke esango gidoirik idatzi dudarik, baina abiapuntu kode askotarikoak dituzten sormen

“Banuen gogoia literaturak edo idazketak eman ahal duen horretan ikertzeko”

prozesu zoro horietan, hainbat izaeratako materialak jolasean jarrita, idazketaren ardura beste batek hartu izan badu ere, sortzen den heinean idazten da; hau da: idazketa ariketak eszenara doaz eta eszenatik paperera bueltatzen da eta, behin eta berriz, probatzen da eta beste elementu batzuekin jartzen da jokoan. Beraz, idazketa prozesua beti izaten da elementu bat gehiago; koreografia, argiak eta koloreak izan daitezkeen bezala. Gidoigintza praktikoa ez dut praktikatu inoiz.

Hala ere, txikitik asko gustatzen zitzaidan idaztea eta, azken urteotan, antzerkian ibili naizenean, sentitu dut banuela gogoia literaturak edo idazketak eman ahal duen horretan ikertzeko. Eta, antzerkiarekin alderatuta, non publikoarekin bizi duzun momentuko zerbait den, idazketak beldur puntu bat ematen zidan; idazten duzu eta hori hor geratzen da irakurle batek zugandik aparte bidaia egin dezan. Ez dugu espaziorik partekatzen. Eta horrek sekulako bertigoia eragiten zidan... Eta bertigoia ematen didaten gauzetan sartzea gustatzen zaidanez...

Bertigoia jendeak egin dezakeen interpretazioagatik?

Publikoak beti du arrazoa. Pertsona horrek bere bidaia egin du eta arrazoa dauka; egia bat da. Izorratzen zara zu, ezin baduzu zure lana kontrolatu, baina ongi dago. Hori ikasi dut. Baina idatziz geratzea, gorpuzta erdian jarri gabe,





Arg: Labrit

ai amaa... Nire hitzak nire kontra etortzearen beldurra edo horrelako zerbait.

Zure egonaldia apur bat azaltze aldera: hona etorri zara dirulaguntza bat jasota, ezta?

Bai, Udalbiltzak "Geuretik Sortuak" beka ematen du idazleek egonaldiak egiteko. Nik boteprontoan bota nuen proiektu bat eta hautatu zuten. Hasieran ia negarrez; "ai, ama, orain egin behar dut".

"Pribilegioa da egonaldi bat burutu ahal izatea idazketara dedikatuta"

Ez zenuen espero?

Ez... Egia esan, kar-kar. Lagin bat aurkeztu behar zen eta ez nuen pentsatzen aterako zenik. Baina, bueno, hala izan da. Eta deialdia, berez, erakargarria da; egonaldi bat burutu ahal izatea idazketara

dedikatuta, egunerokotik aske eta horrek ematen dizun distantziarekin... Bueno, pribilegioa da denbora edukitzea.

Harana ez zenuen aurretik ezagutzen, ezta?

Ez, eta liluratuta nago. Egia da. Hau paradisu naturala da eta nire proiektua guztiz eraldatu du. Eta oso harrera ona izan dut. Asko eskertu dut hori. laz etorri nintzen antzeztera Betelura eta oso oroitzapen ona neukan. Eta akordatzen nintzen deigarria egin zitzaidala festetako egitaraua, gauza asko uztartzen baitziren kartel hartan: herri kirolak, meza, elektrotzaranga, kontzertu feministak, LGTB bandera... Denak batera. Eta pentsatu nuen: "Nahasketa hori nola izango da?". Eta, justu, hona etortzea tokatu. Poz-pozik jarri nintzen.

Orduan, Beteluko festetan aitzurrak eta zartaginak jaurtitzen ibili zara?

Ba ez, azkenean ez. Baina herri txikietan heteroarautik kanpo edo disidentzia sexuala bizi dutenentzat, festak badira itzulera momentu moduko bat. Jende guztia plazara jaisten da eta, askotan, komunitatearekin gatazkan bizi garenoi parte hartzeko aukera eskaintzen digun momentua da. Festak bere alde ilunak ditu, baina hori ere bai. Orduan, interesgune bat iruditu zitzaidan festena.

Eta saiatu naiz: egon nintzen Larraungo herri bazkarian, Azkarateko sanferminetara ere joan nintzen... Baina ez da erraza; kanpokoa naiz, jendeak atenditu behar zaitu eta nik ez dut karga izan nahi. Ibili naiz, giroa usaindu dut eta, proiekturako, balioko dit esperientziak; festak agertuko dira. Baina ez naiz festetan murgildu.

“Heteroarautik kanpo edo disidentzia sexuala bizi dutenentzat, festak badira itzulera momentu moduko bat”

Zertzelada batzuk eman dituzu honezkero, baina zein da zure proiektua?

Gaia planteatu nuenean, momentu bitalagatik edo, garai bateko sexilioarekin konparatuta, ikusten nuen heteroarautik kanpo gure bizitzak proiektatzen genituenok gatazka edo saiakera konstantean bizi ginela gure herrietan; batez ere, komunitateak sortzeko nahian eta bertan geratzeko saiakeran. Gatazkatsua da hori. Azken batean,

bizitza orokorrean eta, are gehiago, herri txikietan, oso heterosexuala da; familia motari dagokionez, harremanak garatzeko moduan eta, zer esanik ez, dauden biolentziekin eta abar luze bat. Eta hor badago gogo bat, nire inguruan asko ikusten dudana behintzat, bizitza bizigarriak izateko. Eta gaia hortik planteatu nuen nolabait. Abiapuntu horrekin, erreferente batzuk irakurrita eta egonaldiak eragindakoekin saiatu naiz hori kontatzeko formula aurkitzen. Horretarako ere idazketa tailerrek lagundu didate niri horri guztiari forma ematen. Sei bat pertsonaiaren ikuspuntutik egingo dut kontaketa eta, horien artean, nire izarra, espero ez nuen bat da: adarbakarra. Aralarren badago mito bat adarbakarrarekin lotuta, nahiko gordina dena, zeinean munstro

bezala irudikatzen den. Adarbakarra mendeetan zehar berrinterpretatuz joan den figura izan da; munstro izatetik kasik Disneyko figura izatera pasa dena. Eta, nolabait, disidentzia sexualaren ikono ere bada.

Eta horietako zein izango da zure adarbakarra?

Bururatu zitzaidan alde biak uzta zitzakeen adarbakarra izan ahal zela: aingerua eta munstroa. Alde etxekotua eta basatia aldi berean. Eta, pentsatu nuen pertsonaia honek bere lekua erreklamatzera etor litekeela euskal iruditegi horretan. Adarbakar horren bakarrizketa bat idazten ari naiz eta poesiaren eta testu teatralaren arteko testua da. Hori ez dut inoiz egin, baina nahiko korporala iruditzen zait poesia bera. Amaluma deitu diot adarbakarrari,



Arg: Labrit

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LÓREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

Atabal
akindogia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARMITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA AGOPORTZEA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotalea 19,
Lekunberri

ARABITLO TXIKI
PUNKUO ESKOLA

www.marilibakil.com
679 938 016



Maite Aizpurua Olaizola. Arg: Labrit

kar-kar. Nolabaiteko nagusikeria du, baina isilpeko eraldaketa baten sinbolo ere bada, eta sentiberatasun marika moduko bat ere badu. Eta gero, zuloaren ideiarekin jolastu nahi dut: hau zuloa da. Estigma marika da, eta emakumearena ere bai, zulo okerrarena; betea izan behar den zulo okerrarena. Eta gure borroketan horri buelta ematen zaio eta probokaziorako ematen du. Honek badu hortik: "Zulatu, baina nik hemen jarraituko dut". Zerk zulatzen du harana hau min ematen eta zerk zulatzen du aldatzeko? Horren inguruko gogoeta egin nahi izan dut: menditik hasita, gasbidea... Gasbideak zulatu ahal du bailara baina baita gaupasa batean enrollatzen diren bi marikoik ere.

"Gure borroketan estigmari buelta ematen zaio eta probokaziorako ematen du"

Lehen aipatu dituzun tailerrak eskaintzeko ere aprobe txatu duzu egonaldia...

Bai, bi tailer proposatu nituen eta oso gustura ibili ginen. Jende asko ez zen animatu; ulertzen dut ez dela erraza idazketa tailer batera jendea erakartzea. Baina nik probatu nahi nuen, zerbait eskaini nahi nuen trukean, eta ariketatik zerbait eraman nahi nuen nire proiektura. Eta horretaz aparte, elkarrizketak ere egin ditut. Oso interesgarriak izan dira. Aurreiritzi guztien kontra, jende

heldua gerturatu zait gehienbat; flipatu dut. Saiatu naiz elkarrizketa informalak egiten, heteroarautik kanpoko esperientzien ingurukoak eta baldintza bakarra mahai gainean jarrita: mamarratxa kanpotar batekin berriketaldi bat izateko gogoia. Uste dut hurbildu diren pertsona guztiek gogoia zutela, nolabait, beren bizipenak kontatzeko. Oso aberasgarriak izan dira. Edonola ere, leku txikitik gaude eta jendeak eskuzabaltasunez emandako aritzeko deontologia puntu bat behar dela uste dut, guztiaren gainetik baitago elkarrizketatutako pertsonen zor diegun errespetua.



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbiztua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

Inigo Garaioa
MARGOLARIA



696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**



urrutia
enea

etxeke hestekiak
LEKUNBERRI



ARRAUNGO GAZTEEN BERTSO ESKOLA HASTEAREN DA

Larraungo Gazteen Bertso Eskola ikasturte berria abiatzearen da. Astelehenero, Ibarberri ikastetxean eta 15:30etik 16:30era, egingo dira urriaren 2an hasiko diren eskolak. Izen-ematea irailaren 29ra artekoa izango da eta www.bertsozale.eus/nafarroa webgunean egin ahalko da.




LEKUNBERRIK ERTZILLA UR PARTZUERGOAN JARRAITUKO DU

Lekunberriko Udalak urtarilean hasitako Ertzilla ur partzuergotik ateratzeko prozesua bertan behera utzi du. Norabide aldaketak EH Bilduren bost botoak izan ditu alde eta Lekunberriko Taldearen laurak aurka. Lankidetzeta eta zerbitzuak hobetzeko asmoz hartutako erabakia dela argudiatu du udal talde berriak.

HEGAZTIEN ERAZTUNTZE ZIENTIFIKOA IKASTEKO AUKERA

Abuztuan hasi ziren, Aranzadi zientzia elkartearen eskutik, Lekunberri hegaztien eraztuntze zientifikoen tailerrak eta irailean emango zaie segida. Teoria ezagutzen dutenek praktikara eramanez ahal izango dituzte ikasitakoak irailaren 16an, 9:00etan autokarabanez aparkalekutik abiatuko den taldearekin. Teoria ikasi nahi duenak, irailaren 29an du 17:30ean, Antonean, mundu horretara hurbiltzeko parada, eta, 30ean, beste irteera praktiko batean parte hartzeko gonbita. Izen ematea www.bibe.me/ekitaldiak-aranzadi webgunean egin daiteke.





IRIBASKO OSTATUA ZAHARBERRITZEKO DIRULAGUNTZA JASO DU LARRAUNEK

Nafarroako Gobernuak 160.000 euroko dirulaguntza eman dio Larraungo Udalari Iribasko ostatua zaharberri dezan. Hurrengo faseetan etxebizitzetarako egokitzea eta ostatu zerbitzua berreskuratzea da asmoa.



"BETELU INFORMA" ZERBITZUA ABIAN DA

Beteluko Udalak "Betelu Informa" zerbitzuaren bidez udal bandoak, informazioa eta albisteak eskainiko dizkie biztanleei. Android darabilten erabiltzaileek "Betelu informa" aplikazioa deskarga dezakete Google Play-n; IOS erabiltzen dutenek, "bandomovil" bilatu beharko dute App Store aplikazioan.

LARRAUNGO UDALAK ETXEBIZITZA BEHAR DUTENEN ERROLDA EGINGO DU

Larraungo Udalak etxebizitza baten beharra duten lagunekin zerrenda bat osatuko du. Hori kontuan izanik, eta lehentasunak zehazteko mekanismo baten bitartez, esleituz joango dira Udalak datozen urteotan eskainiko dituen etxebizitzak. Izen-emateak udaletxean eta larraun.eus webgunearen bitartez egin ahalko dira.



Mugimenduari erreparatzeko habia

Oskar Estanga gaintzarrak Sortetxea izeneko espazioa ireki du Gaintzan. Helburua da, besteak beste, nork bere buruarekin duen harremanean nahiz besteekin duenean sakontzea, ongizatea garatzen jarraitzeko. Horretarako, dantza librean, kontaktuan eta inprobisazioan oinarritutako ekintzak eginen dituzte, hainbat egunetako egonaldietan nahiz aste barruko saioetan. Irailerako sexologia tailer bat eta Aralarte izeneko egonaldia antolatu dituzte.

14

Gizakia beti dago mugimenduan, ibilian aritu edo ez, gorputza ez baita eteten bizirik gauden bitartean. Mugimendu hori kanpokoia nahiz barrukoa izan daiteke, fisikoa nahiz aldarteari begirakoa, emozionala, baita sistematikoa ere, noski. Etengabeko mugimendu horretan, batzuetan gerta daiteke barrukoari kanpokoari baino arreta gehiago jartzea, baina kontrakoa ere, hau da, konturatu gabe barrukoa behartzen aritzea; noiz sentitzen dugu mina, bai barruan, bai kanpoan?

Garen mugimendua irakur daiteke Gaintza herriko sarreran dagoen Sortetxeako paretan, izenaren beraren azpian. Malloen magalean, harremanak egiteko, garatzeko, hartu-emanetan sakontzeko habia bat sortu baitu Oskar Estanga gaintzarrak, nor bere buruarekin nahiz gainerakoekin modu kontzientean, gardenean, garbian elkarri eragiteko espazio berezi bat. Ateak ireki ditu dagoeneko Sortetxeak, eta aurrerantzean asteburuetarako, oporretarako eta urtean zehar egiteko egonaldiak eskainiko ditu; oro har, pentsio osoko egonaldiak izanen

dira, eta ekintzak Oskarrek berak nahiz kanpoko adituren batek bideratuko ditu. Horrez gainera, inguruko herritarrentzako saioen bat edo beste ere eskaini nahiko luke Estangak aste barruan, zerbait "erregularra", ibarrekoek ere beren mugimenduan egoteko abagunea izan dezaten.

Sortetxea hori guztia eskaini ahal izateko egokitu du gaintzarrak. Ez da urte erraza izan, aitortu duenez, fisikoki batez ere gogorra egin baitzaio proiektuari aurpegia jartzea,



“Saio batzuk gidatuak izanen dira, eta beste batzuk, berriz, gidatu gabeak”

Oskar Estanga

baina hainbesteko koordinazioaren ondoren proiektuaren forma orraztea baino ez zaio falta orain. Etxe ederra da Sortetxea, Gaintzara ailegatu bezain pronto atentzioa ematen duen eraikin berezia: jantoki komun bat prestatu du bisitarientzat, sukalde berri baten ondoan, eta ohatze ugari daude hainbat gelatan, baita komunak ere. Alabaina, 83 metro koadro den gela da denetan bereziena: malloek islatzen duten argi naturalak goxaturik, egonaldietako parte-hartzaileek espazio atsegin eta lasaia aurkituko dute ekintzak egiteko. Bozgorailurik ez da falta, eta beharrezko material guztia ere bertan aurkituko dute. Halaber, ekintzak ez dituzte Sortetxe barruan bakarrik eginen: etxearen kanpoko aldea ere tailerretarako agertoki bihurtuko da, inguruaren eta naturaren aura bereziak inguratuz.

Alde egin bueltakoan aurkitzeko

Hamaika saltsatan ibilitakoa da Estanga, batik batik kulturgintzaren biran. Eta, hain zuzen, horrexegatik da hain ezaguna ibarrean, ziurrenik gehienek ikusi edota aditu baitute inoiz inguruan antolatutako kultur ekintzetan. Hainbat urtetan han eta hemen ibili eta gero, sustraietara bueltatzea erabaki du orain, jaioterrira, jaiotetxera, proiektu “oso pertsonal” hau abiarazteko asmoz.



Sortetxea espazioaren atarian Oskar Estanga. Arg: Labrit

Itzulera pixka bat paradoxikoa ere bada; izan ere, gaztetan, 14 urterekin, Iruñera joan zen ikastera, Gaintzan bertan ez baitzegoen guztiz eroso, ez baitzuen bere burua guztiz identifikatuta sentitzen bertako ohiturekin eta jarrerekin. Zer izan nahi zuen bilatzen hasi zen orduan, zerk asebeteko zuen asmatu nahian, eta bidezidorretan barrena ibili ondoren, hala nola hezkuntzan, musikan eta bertsoaritzan, mugimendu librea eta ongizatea topatu zituen. Orain, Sortetxean, bere bizitzako “faktore pila bat” elkartu ditu, eta habia berri horrek ezaugarri horiek guztiak garatuz joateko bidea emango dio. Benetan zer egin nahi duen argi duen honetan, bisitariei momentuan bertan behar dutena eskaini nahi die, horretarako espazio seguru bat emanda, eta espazio hori bera, Sortetxea, zaintzen eta elikatzen arituko da aurrerantzean, askotariko emozioen testigu den bitartean: barreak, negarrak, amorrua, pozak, lasaitasuna, besarkadak...

“Nork bere burua sentitzea, lasai egotea, naturarekin harremana izatea... hori guztia ere tresna bat izango da, musikarekin eta inprobisazioarekin batera sortuko dugun prozesu bat”.

Oskar Estanga

ERREPORTAJEA

Ongizatea lortzeko teknikak

Nola lortu, ordea, harremanetan aurrera egitea, ongizatea lortu ahal izateko? Estangaren ustez, orain arte gizartearen erroturik zegoen ideia nagusia zen ongizatea gauza materialetatik heldu zela: etxea, arropa, janaria... Hori guztia bizitzeko beharrezkotzat jotzen du, noski, baina adierazi du ikuspuntua aldatzen ari dela: "Luxuzko joera horretan

ongizatea pixka bat galtzen dela ikusten ari gara, eta badagoela geure buruarekin eta besteekin egotetik lortu behar dugun ongizate bat. Errealitate horri erantzun nahi diot hemendik, eta dantza da horretarako teknika nagusia".

Zehazki, mugimendu libreko dantza landuko dute Sortetxean, eta ez gaur egun toki eta egoera batzuetan egiten den "dantza elitista". "Batzuetan gidatua izanen



Sortetxea espazioa. Arg: Labrit



HOSTAL BETELU
Eguneko menua,
karta, plater
kombinatuak eta
pizza goxoak
Erreserbak:
948 51 30 26 · 663 97 67 09

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
— ARTZAI GAZTAK —
Granja Markinena, GARTZA, Nafarroa
Ibaki. 649 472 057 • Iruroa. 662 50 057
Malloak.com • info@malloak.com
IDIAZABAL



ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak



GALBURU
okindegia - panaderia
Egut-labean egina!
Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

da, eta beste batzuetan, berriz, gidatu gabea". *Movimiento expresivo río abierto* izeneko sistema landu du Estangak batez ere; nork bere burua ezagutzeko eta garatzeko sistema bat da, betiere taldean egiten dena. Gizakiaren alderdi desberdinak kontuan hartuta eta kontaktua erabilia, helburua da ohartzea bakoitza nola dagoen eta zer daukan adierazteko, eta horretarako lekua ematen dio bakoitzari. Hori lortu ahal izateko, askotariko baliabideak erabiltzen dituzte: dantza libre, dantza gidatua, masajea, meditazioa, adierazpena... Contact inprobisazioa izan da beste erreminta bat, dantza libre mota bat. Kasu horretan, kontaktua eta inprobisazioa elkartu egiten dira, eta gauza asko egin daitezke oso gutxiarekin; Ecstatic Dance saio batzuk ere egin izan ditu eta egingo ditu aurrerantzean Estangak. Teknika, sistema edota erreminta edozein dela ere, natura oso garrantzitsua da prozesu guztietan, ekintza aurrera eramaten den lekua bera: "Nork bere burua sentitzea, lasai egotea, naturarekin harremana izatea, zuhaitzekin egotea, etzatea... hori guztia ere tresna bat izango da, musikarekin eta inprobisazioarekin batera sortuko dugun prozesu bat".

Inguruarekin izan beharreko hartu-emanarekin lotuta, Araizko jendeak nahiz udalak emandako indarra ere nabarmendu nahi izan du Estangak. Zalantzarik gabe, etxeok

"Egiten dugunaz, egiten ez dugunaz eta egin nahi dugunaz hitz egiteko kanal bat irekitzea gustatuko litzaidake"

Oskar Estanga

emandako babesarekin batera, inguruak eman dio urratsa egiteko falta zuen bultzada: "Oso eskertuta nago udalak eta Araizko jendeak eman didan animoarekin. Oso ederra izan da, asko motibatu nau, eta hori magikoa iruditzen zait. Saio zehatzez gainera, inguruari ere ekarpen bat egin nahiko nioke: egiten dugunaz, egiten ez dugunaz eta egin nahi dugunaz hitz egiteko kanal bat irekitzea gustatuko litzaidake, eta gure arteko harremana bizirik egotea". Gainera, Sortetxera etortzen den jendea inguruko herrietan ere ibiliko denez, nolabaiteko "truke" hori zaindu nahiko luke gaintzarrak.

Etxekoentzako ere izan ditu esker oneko hitzak: "Etxekoei asko eskertu nahi diet konfiantza. Azkenean, jakin gabe proiektuak zertan zetzan eta ikusita horrelako gauzak ez direla ohikoak inguru honetan, konfiantza jarri zuten nigan, eta obra egiteko laguntza eman zidaten. Hori izan da Sortetxea aurrera eramateko arrazoi

nagusietako bat; hori izan ez banu, ez dut uste hau guztia posible izango zenik, zeren eta hor egon dira zentzu guztietan".

Udan eta iraila hasieran egin dituzte saio batzuk dagoeneko Sortetxean, eta heldu diren asteetarako ere badituzte batzuk bideratuta. Batetik, irailaren 15etik 17ra bitartean, sexologiaren inguruko ikastaro bat eginen dute, Oskarrek berak eta Pili Miqueok bideratua. Bestetik, irailaren 22an, 23an eta 24an, Aralarte izeneko egonaldia eskainiko dute Oskarrek berak ere eta Miren Aingeru Saralegik. Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko, idatzi info@sortetxea.eus helbidera edota deitu **686 42 70 87** telefono zenbakira. [@sortetxea](https://www.instagram.com/sortetxea) izeneko Instagrameko kontuan ere aurki ditzakezu xehetasun gehiago, baita www.sortetxea.eus webgunean ere.

"Etxekoen babesa izan ez banu, ez dut uste hau guztia posible izango zenik"

Oskar Estanga



ASEGURU AHOLKULARIAK
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
Lekunberri

Cederna Garalur-eko ekintzailletza zerbitzua



ematen dituela eta horretarako lankidetzan estuan ari gara tokiko udalekin, erakundeekin, enprekin, etab. Gure helburua zerbitzu publikoen hobekuntza eta jardura ekonomiko jasangarri, berritzaile eta baliabide endogenoak erabili eta errespetatzen dituztenak finkatzea da.

Ekintzailletza Cederna Garalurren ardatz estrategiko bat da, lurraldean jardura ekonomikoak sustatzeko funtsezkoa baita. Enplegu iraunkorra, kalitatezkoa eta duina giltzarriak dira pertsonak eta familiak gure herrietan sustraitzeko, biztanleria berria erakartzeko eta, hartara, jendez husteko joera geldiarazteko. 2014. urtean Nafarroa Ekintzailletza Sarean sartu ginen eta bertan ekintzailletzari laguntzeko hiru alderditan oinarritutako metodologia garatu dugu: kultura ekintzailletza sustatzea, pertsona ekintzailletzei eta enpresei laguntza tekniko ematea, eta prestakuntza fiskala.

18

Cederna Garalur Elkarteak, Nafarroako iparraldean dagoen garapenerako agentzia da. Elkartearen barruan, Mendialdea agentziak, hamabi herritan egiten du lan, hala nola, Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Araitz, Larraun, Betelu, Lekunberri,

Basaburua, Imotz, Atetz eta Ultzaman.

Cederna Garalurren uste dugu Nafarroako Mendialdeak bizitza proiektuak aurrera eramateko aukera onak eta erakargarriak

Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO
ELKANO
S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Ekintzailetzari laguntzeko zerbitzuaren oinarriak: kultura ekintzailea, aholkularitza tekniko eta prestakuntza fiskala.

Noiz da pertsona bat ekintzaile? Cederna Garalurren uste dugu jarduera ekonomiko bat burutan zein eskutan duen pertsona oro dela ekintzailea. Alde batetik, negozio ideia dutenei zuzendutako aholkularitza daukagu ideari forma eman eta negozioaren bideragarritasun planarekin laguntzeko. Informazio desberdinak ere ematen ditugu: diru-laguntzak, egun dauden forma juridiko desberdinak eta altan emateko egin beharreko tramiteak, behinik behin. Hontaz gain, orain dela bi urtetik hona, negozioen erreleboak eta negozio publikoak kudeatzeko eskaintzak argitaratzen ditugu www.navarraemprende.com atarian. 2022 eta 2023ko uztailak arte negozio ideia duten 58 ekintzaileari eman

diegu arreta Mendialdean eta 22 negozio berri jarri dira martxan. Bestalde, martxan dauden negozioei ere zuzentzen gara (bai hasi berriak, zein urteak daramatzatenak) beharizan asko izaten baitituzte, hala nola, dibertsifikazioa, hobekuntzak, suspertzea, handitzea, ezagutzera ematea, etab. Honetaz gain, 2022 eta 2023ko uztaila arte 43 negoziari eman diegu arreta.

Cederna Garalurreko Mendialdea agentziak lan talde zabala du bai eskualdean (3 dinamizatzailer sektore hauetarako: Elikadura – Amaiur Unzueta-; enpresak –Iñigo Martinez-; eta industria -Andoni Michaus-), baita Antsoaingo bulegoetan ere. Antsoaingo lan taldeak ekintzailetzari dagokionez beste zerbitzu batzuk eskaintzeko aukera ere ematen du, besteak beste, merkataritzarako aholkularitza tekniko eta fiskalitateari buruzko formakuntza.

Beraz, ekintzailea bazara, jarduera ekonomiko baten ideiarekin edo negozio batekin martxan bazaude eta laguntza behar baldin baduzu, jar zaitez Mendialdeko Cederna Garalurrekin kontaktuan:

Ainhoa Oribe (garapen agentea)
Telf: 617609328
Email: mendialdea@cederna.es

Arreta guneak
(hitzordua alde aurretik hartzea eskatzen da):

- **Lekunberri**, Plazaolan. Astelehen eta astearteak.
- **Larraitzar**, udaletxean: asteazkenak, bi asterik behin.
- **Leitza**, Mimukai: ostegun eta ostiralak.
- **Goizueta**, udaletxean: hileko lehen astelehenak.



**euskara hurbil,
zu urrun heltzeko**

Larraungo AEK

- Maila guztiak
- Gurasa taldea 5/6 ordu astean
- EGA azterketa prestatzeko ikastaroa
- SAKONTZEN (jarraiek berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)
- Taldea edo autoikaskuntza
- Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA
948 604 704 edo 607 622 102 | larroun@aeek.eus

Ibena eman irailaren 23a baino lehen
Artzanegi 6, Lekunberri

DIRULAGUNTZAK

Iparaldeko Euskara Menkomunitateak diruz lagundutako ikastaroak
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak

GAINTZA

KABLEAREN EGUNA OSPATU ZEN GAINTZAN

Uztailaren 22an, larunbatarekin, Araizko Kablearen Eguna ospatu zen Gaintzan. Araizko Zaporeak taldeak prestatutako egitarauan, aurkezpen bat egin ostean abiatu ziren musikak lagunduta Zezelainerantz. Bertan, belarrak nola biltzen eta garraiatzen zituzten azaldu zitzaizen bertaratutakoei. Festa giroan eman zioten itxiera egunari herrian musikak eta pintxo batzuek lagunduta.



Gaintza. Arg: Juan Barriola



Gaintza. Arg: Juan Barriola



Gaintza. Arg: Juan Barriola



Gaintza. Arg: Juan Barriola



Gaintza. Arg: Juan Barriola

LEKUNBERRI



Lekunberri. Arg: Lekunberriko Udala

Antzinako merkatuaren 27. edizioa egin zen Lekunberrin

Abuztuaren 6an, igandearekin, Antzinako Merkatuaren 27. edizioa ospatu zen Lekunberrin. Egunean zehar, musika tradizionala, erraldoiak, dantzak, azoka eta kontzertuak disfrutatu ahal izan zituzten bertaratu zirenek.



Lekunberri. Arg: Lekunberriko Udala



Lekunberri. Arg: Lekunberriko Udala



Lekunberri. Arg: Lekunberriko Udala



Lekunberri. Arg: Lekunberriko Udala

JAIAK



Astitz.



Astitz.



Astitz.



Arribe.



Arribe.



Uztegi.



Arribe.



Uztegi.



Azkarate.

Oporrak opor

Urte luzea lanean eman ondoren, aldaketa eta, ahal izanez gero, deskantsuaren beharra sentitzen dugu. Batzuk etxean geratu eta gauzak egiteko parada hartu, beste batzuk ezer egin gabe egon eta beste batzuk kanpora norabait joatea aukeratzen dugu. Eguneroko errutinatik ateratzen gara oporretan.

Aurten ni Malaysian egon naiz. Ez nuen ezagutzen eta nire alaba Maider han zegoela aitzakia bezala hartuta, bertaratu naiz. Lehenengo 3 asteak bakarrik ibili naiz herrialde urrun eta desberdin honetan. Laugarren astea, aldiz, Maiderrekin, eta bukaeran berriz bakarrik. Borneo eta Penintsulako hainbat toki ezagutu ditut aurretik ezer planeatu gabe. Ia egunero erabakitzen nuen hurrengoan zer egin. Oihanean ibili naiz eta orangutanak, tximino mota desberdin asko, bi metro eta erdiko muskerrak, hegazti handiak eta txikiak, metro luzeko saguzarrak eta beste asko ikusi ditut. Itsasoan, koralak, marrazoak, era guztietako arrainak, marmokak, e. a. Hiri desberdinak, hiru kultura batera -malysiarrek, hinduak eta txinatarrak- eta hiru erlijio, musulmana nagusia bada ere.

Toki batetik bestera ibili naiz nire bidea aurkitzen eta, aldi berean, nire buruan zer mugitzen den sentitzen eta behatzen. Esperientzia aberasgarria izan da, zalantzarik gabe. Berrituta, ikasia, etorri naiz, pozik eta gehiagorako gogoz.



Errazkin.



Errazkin.



Errazkin.



Gorriti.



Gorriti.



Gorriti.



Gorriti.

Hitz aspertuan



●● Agurtzane Altuna

Extrasistolea

Bihotzaren taupada eta taupada arteko ustekabeko saltotxo bat da extrasistolea, hurrengo taupada arte denbora tarte luze bat hartzen duena. Maite Larburu musikari hernaniarraren abesti baten izenburua ere halaxe da: Extrasistolea. Bere biolina dotore astintzen du taupa-taupaka dabilen bihotz baten taupada bizkorrak irudikatuz eta bat-bateko isiluneak sortuz gero ustekabeen.

*Beti puntuan ibili zara zu;
kolpe zehatz-zehatzak sortuz.
Baina gaur
zure lekua hartu duzu.*

*Zerbait ez zebilen justu;
ez zaitut, antza,
ongiegi zaindu.
Baina gaur
hain eder adierazi didazu:*

...extrasistolea...

*taupada bat gutxiago,
huts bat gehiago;...*

Honelaxe dio Extrasistolea abestiaren letrak. Nik ez dakit beti puntuan ibiltzen ote den gure bihotza; ongi dabilenean oharkabeen pasatzen da behintzat. Nik ez dakit zerbait ez ote zebilen justu, edo ez ote dugun gure bihotza ongiegi zaintzen. Taupada bat gutxiago, huts bat gehiago; hori bai, horretaz ongi asko ohartu gara Jonan joan denean.

...extrasistolea...

Bere bihotzak ez ezik gureak ere etenaldia izan du denbora tarte motz batez. Bereak ez du, ordea, atzera bueltarik izan. Taupa-taupaka dantzari dabilen musikari txiki baten gisan irudika dezakegu gure bihotza. Zenbat doinu, zenbat musika isildu ditu bat-batean zure taupada ezak.

...extrasistolea...

Mila esker jarri zenion izena hain maitea zenuen Lou Reed musikariaren omenez, bere kantuak euskaraz bertsionatu eta ekoiztu zenuen diskoari. Mila esker zuri, Jonan.

Zure bihotzaren taupadak eten dira; begiak txiki-txiki jarri arterainoko zure irribarre etengabe hori gudan geratuko da betirako. Eta zure umorea; eta zure ahots gogorraren sakona. Zapi gorri bat zintzilikatu beharko dugu Askateko festetan, iluntzeetan dagoeneko zvezurea zen barra atzeko txoko horretan.

Eskerrik asko zuri, Jonan; ongi segi eta eskuminak Lou Reedi!

Hurrengoa:

Olatz Martirena (Uitzi)



Nahiara Juanena
(Iribas)

maite ditut maite gure bazterrak

Gaztelu (998m) eta Txurregi (1125) Urritzolatik


Ibilbidea: joan-etorria
Distantzia: 9,6km
Desnibela: 805m
Zailtasuna: erraza

Zergatik aukeratu dut?

Mendira joaten naizenean tontorrek igotzeaz gain gure bazterrak ezagutu eta gure inguruak eskaintzen digun paisaiaz gozatzea gogoko dut. Bi mendi hauen igoera ikaragarri polita izateaz gain urtaro bakoitzean paisaia eta sentsazio desberdinak bizitzeko aukera ematen digu. Eta nola ez, tontorrean gaudela gure aurrean dugun 360º paregabeak dira.

Bidea:

- 1 Urritzola herrian autoa utzi eta herria eskuinaldean utzita gorantz abiatuko gara.
- 2 Ezkerraldean geratzen den bidexka batetik egingo dugu gora.
- 3 Pixkanaka gorantz doan bide baten bitartez basoan murgilduko gara bertan dauden mugarriak jarraituz.
- 4 Gogor goraka hasi garela bidegurutze bat topatuko dugu, non eskuinera egingo dugun igotzen jarraitzeko.
- 5 Basoa atzean utzita lautada batean arnasa hartzeko aukera dugu, bertatik ikusten den paisaiaz gozatuz.
- 6 Pixka bat deskantsatu ondoren eskuinera joango gara Gaztelura iristeko geratzen den azken aldapa igotzeko (ezkerraldean Txurregi).
- 7 3,5 km eta 500m-ko desnibela igo ondoren iritsi gara Gaztelura.
- 8 Gogoz geratu direnek Txurregira igotzeko aukera dute.
- 9 Bertatik ikusten den paisaia ikaragarri polita da eta gomendio bat, geratu ilunabarra ikustera, Olarregiko mendixkara jaitsi eta parean geratzen den azken aldapa igoz.





Arg: Ibai Tolosa

Ibai Tolosa Gomezek zilarrezko domina irabazi zuen junior mailako Munduko Piraguismo Txapelketan

Ibai Tolosa Gomez azkaratearrak, uztailaren 5etik 6ra, Italiako Auronzon herrian jokaturako junior mailako Munduko Piraguismo Txapelketan hartu zuen parte. Bi probatan lehiatu zen: C2 1000 metroko proban, Juan Ruiz sevillarrarekin bikotea osatuz, zazpigarren postua erdietsi zuten, eta C4 500 metroko proban, Nikolas Braña galziarrarekin, Daniel Ros madrildarrarekin eta Juan Ruizekin berarekin batera, zilarrezko domina irabazi zuen.

26

Beteluko gizonetzkoen areto futboleko taldea estreinatuko da aurten Liga Autonomikoan

Aurten, Beteluko gizonetzkoen areto futbol taldea izango du Nafarroako Liga Autonomikoan. Araizko eta Beteluko jokalariz osaturiko klubak pausua eman du lehia ofizialean aritzeko. Halakoetan, behe-behetik hasi behar, ezinbestean. Astean bitan entrenatzen dabil Beteluko FT Grupo Wisco urrian hasiko den txapelketan erritmoa hartuta heltzeko. Beteluko frontoian bertan ikusi ahalko ditugu bi astean behin baloia sareratzten.



Arg: Araxes HK

Araxes Herri Kirol taldeak txapela lortu du 21 urtez azpiko proba konbinatuan

Aurten ere, Araxes taldeak Herri Kiroleko 21 urtez azpiko proba konbinatuko Nafarroako txapela erdietsi du. Elizondon, Burlatan eta Antsoainen izan dira jardunaldiak eta tarte polita atera diete lehiakideei hiruretan: Araxesek 50:45 minutu batu zituen probetan, Berriozarrek 57:25 eta Antsoainek 57:45. Araxes da proba konbinatuan emakume gehien dituen taldea.



Ibai Soroa eta Iker Vicente Sunbillan garaile

Abuztuaren 13an, igandearekin, XX. Ramon Latasa memoriale egin zuten Sunbillan. Bertan aritu ziren. Lau bikote ziren lehia: Txikia IVa-Amundarain, Basozabal-Mugertza, Otaño-Bihurri eta Vicente-Soroa. Azken bi bikoteak izan ziren lehia estuan ibili zirenak azken hiru enborretara heldu arte. Momentu hartan, Iker Vicente, Ibai Soroa arribearrak ederki lagunduta, hasi zen aldea zabaltzen. 27 minutu eta 21 segundo behar izan zituzten lana bukatzeko, 30:27 Otañok eta Bihurrik, 31:08 Txikia IV.a-Amundarain bikoteak, eta 31:29 Basozabalek eta Mugertzak.

Ttuturre kirol elkarteak Benasquera joango da

Ttuturre kirol elkarteak Benasquen pasako du iraileko bigarren asteburua. 8an, ostiralarekin, abiatuko dira arratsaldeak. Larunbatean hiru plan izango dituzte aukeran: Pasolobino, Castanesa, Roques, Trencades eta Estibafreda gailurretan ibiltzea; Cerler inguruan ibilbide zirkularra egin, eta Las Tres Cascadas izeneko ibilbide lauagoa. Igandean, Estós inguruan ibili ostean, bazkaldu eta autobusa hartuko dute bueltan.

**AURTENGO
FESTETAN**

**ERABILI
EDALONTZI
BERRERABILGARRIA**



Betiko Amairu, inoiz baino hobeki

Kotxera 13k atek zabaldu ditu udan, errege-bideko Mugiroko kotxera zaharberrituan, urtetan Amairu tabernak jorratutako bideari jarraipena emanez. Espazio berrian eskaintzari eutsiko dioten arren, pixkatxo bat gehiago eskaini nahi diete bezeroei.

XVIII. mendean, Iruñetik Tolosara zihoan bidaiariak kotxerak baliatu behar izaten zituen Errege-bidean barrena, zaldiak aldatzeko edota atsedean hartzeko. Mugiron bazen horietako bat. Zaldiak joan, urteak etorri, trenak Errege-bidea ordezkatu zuen eta A-15 autobideak tren. Baina kotxera zutik mantendu da mendilerroari begira; denboraren gurpilaren testigu. Kotxera izatetik borda izatera pasa zen aurrena, eta borda izatetik taberna izatera orain.

Amairu tabernako Ana Ojerrek eta Jorge Galarzak erreformatu dute azken honen aita zen Manoloren borda. Hainbat

elementuk lagundu diete Aralar kaleko lokaletik kotxerara joateko bidea hartzen: sukaldearen eta biltegiaren txikitasunak, lokalaren

“Oso azkar joan da prozesua”
Ana Ojer

kontratuaren iraungitzeak eta kotxera zaharberritzeko lortu zuten dirulaguntzak. Horretaz gain, eskaintzen duten bizikleten alokairua bordan kudeatzen zutenez, kotxeraren ondoan, dena elkartzeko aukera paregabea izan zitekeela ikusi zuten. Bururatu eta

egin. “Oso azkar joan da guztia”, esan du Anak. Gauzak argi izanik arinago joan ohi dira gauzak. Sukalde eta biltegi handiagoak nahi zituzten, eta, aukeran, bata bestearen ondoan. “Lehen oso ongi kalkulatu behar genuen gauero zer beharko genuen. Eta, hala ere, askotan joan behar izaten genuen azkeneko momentuan korrika faltan genuen zerbaiten bila”, azaldu du.

“Lehen oso ongi kalkulatu behar genuen gauero zer beharko genuen”
Ana Ojer



Arg: Labrit

Arnasa har daiteke orain sukaldean eta freskotasan hori eraman nahi dute mahaira; beren bezeroek estimatzen duten estiloari fidel, baina zertxobait gaineratuz. Udan, lokala eta ikuspegi zoragarriak izan dira nobedadea; udazkenetik aurrera, parrilla izango da. Baina pausu guztiak sendoak izan daitezen nahi dute: “Gauzak ongi egin nahi ditugu eta, hortaz, pixkanaka joango gara gauza gehiago eskaintzen; parrillari neurria hartzen diogun heinean hasiko gara menua aberasten”, zehaztu du Anak.

“Parrillari neurria hartzen diogun heinean hasiko gara menua aberasten”
Ana Ojer



Kotxerak maldan behera zuen teilatua eta nibelatze hutsarekin irabazi dute bigarren solairua. Horretarako, atzeko partean behar ez zituzten harriak baliatu dituzte, jatorrizko materialak ahal bezainbat aprobetxatuz. Terrazak, beheko plantak eta goikoak hainbat txoko desberdin eskaintzen dizkio bezeroari: saltsan egoteko, lagun batekin hizketan ibiltzeko edota paisaiari so, kikara bat kaferen konpainian, denbora eta kezka joaten uzteko. Edonola ere, espazio guztiak konektatuta daude nolabait eta bisitariari horiek guztiak ezagutzeko jakin-mina sortzen zaio atea zabaltzen duen unetik.

Asteazkena atsedean hartzeko hartuta, 9:30etik aurrera, ostegunetik asteartera artatuko ditu bezeroak Kotxera 13k. Autoz joan nahi duenak Amairu zaharrean baino errazago izango du aparkatzea, errege-bideko bazter batean, non oraindik ikus

daitezkeen horren arrastoak. "Aztarna horiek berreskuratu nahi ditugu, hein batean", aurreratu du Anak.

"Errege-bidearen aztarnak hein batean berreskuratu nahi ditugu"

Ana Ojer

Oso harrera ona izan du lokal berriak; jende asko hurbildu da eta aurreikuspenak gaintitu dituzte lehenengo bi hilabeteotan. Lanpetuta bezain kontent daude arduradunak. Espazio berrira egokitu behar izan dira eta, aurrekoarekin alderatuta, edukiera % 60 inguruan handitu da. Aurreneko urrats hauetan, orain arteko eskaintza berbera: eguerdian oso "etxeko" bazkaria eta gauzez pizzak, plater konbinatuak eta abar. Prezioei eusteko ahalegina ere egin dute:

asteazken menua 17,90 euroan dute eta asteburuan 25 euroan.

Pixkanaka, zeliakoentzako eskaintza zabaltzeko asmoa agertu dute, ongi zaindu beharreko kontua dela iritzita. Barazkijaleendako eskaintza berezirik, ordea, ez dute egingo: "Barazkijaleendako alternatibarik ez da falta. Oso pozik joan dira beti etorri diren guztiak; uste dut ongi zaintzen ditugula", azpimarratu du Anak. Eta, aurrerago, buruan darabilten beste ideia bat etor liteke Errege-bidea hartuta: dastaketak. "Garagardo dastaketak egin genitzake, adibidez. Eta whisky dastaketak agian ere bai. Aditu batek ate hori zabaltzen dizunean, beste mundu bat da topatzen duzu. Baina pausoz pauso joango gara; aurrena, hainbat aldaketara egokitu behar gara", erabaki du Anak.


CARPINTERIA Hnos. AZPIROZ, S.L.
 ZURGINTZA OROKORRA
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
 Telefonoa eta Faxa: 948507343
 carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
 Aralar kalea, 41
 Lekunberri

OGI BERRI
 OKIN ARTISAUAK 948604884


German Lasarte
 HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

SAN MIGUEL
 gasolindegia

 Xabier Garmendia 629 350 099
 Ambe-Atalla


Construcciones Gañarbe
 ERREABILITAZIOAK
 IGELTSERITZA
 FATXADAK
 TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
 📞 616 457 540
 ✉️ construccionegagnarbe@gmail.com
 📞 636 827 846

LEKUNBERRIKO FESTETAKO KARTELA ETA SUZIRIAREN JAURTITZAILEA HAUTATZEKO PROZESUAK ZABALIK

Irailaren 12ra arte bidali ahalko dira festetarako kartelak eta txupinazoaren jaurtitzaila izendatzeko proposamenak.

Kartelei dagokionez, A3 formatuan aurkeztu beharko dira fisikoki. USB memoria batean aurkezteko aukera ere izango da.

**“LEKUNBERRIKO FESTAK 2023 Urriaren 11tik 15era”
dioen testua agertu beharko da.**

Bi kategoria izango dira: 15 urte artekoak, eskola materiala jasoko du sarituak, eta 16 urtetik gorakoak, 200 euroko saria izango duena.

Kartelak Udaletxean edo Mitxausean aurkeztu ahal dira.

Festetan suziria jaurtitzeko Lekunberrirekin harreman zuzena duten pertsona edo taldeak proposatu ahalko dira. Udaletxean edo Mitxausean jarri diren postontzietan utziko diren proposamen anonimoetan, pertsonaren edo taldearen izenarekin batera, hautaketa arrazoitzeko azalpen laburra idatziko da.

Proposamenak Jai Batzordeak jaso eta onartzen dituenak herri bozketara aurkeztuko ditu, Udalaren komunikabideetan iragarriko duen epean.

MITXAUSENEAN IRAKURLE TALDEA SORTUKO DA

Lekunberriko Mitxausean den liburutegi publikoan irakurle taldea osatu eta egokitzeko asmoz dabilta. Talde interesa duen ororentzat dago zabalik eta ez da irakurzale handia izan beharrik. Horretan parte hartzeko interesa duenak liburutegian, **948 69 45 82** telefonoan edota *mitxausea.kultura@gmail.com* helbidera idatzita eskura dezake informazio gehiago.



▶ AGENDA

IRAILA

10- Espaniako txirrindularitza bira (La Vuelta) pasako da.

14- 17:00etan Astizko ostatuan, EUSKARAZ BAI sukaldaritza saioa.

16- 18:00etan Printzako lorategian, Printza Kaña festi: Hashtack, Conflict Noise eta Salv Rural hardcore.

17- Plazaolako maratoia eta erdi maratoia.

23- Tximista festa Azkaraten.

* KONTZEJUETAKO FESTEN
EGITARAU KONTRAZALEAN

URRIA

1- Nafarroako Sagardo Eguna Lekunberrin.

PUBLIZITATEA MAILOPEN

Labrit Multimedia - 948 210 103
mailope@labrit.net

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

SOTIL GARAJEA



BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako bekoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

- Ile-apaindegia
- Estetika
- Presoterapia
- Podologia
- Laser-depilazioa eta depilazio elektrikoa
- Dietista-nutrizionista
- Mikropigmentazioa ezpainetan
- Mikroblading bekainetan

ETXARRIKO FESTAK

Irailak 9

- 11:20etan** Pesten hasiera suziria
- 11:30etan** Bordetara oinez
- 12:00etan** Erronda bordetan
- 15:00etan** Erronda herrian zehar
- 18:00etan** Puzgarria
- 20:00etan** Dantzaldia BIZPHIRU taldea
- 22:00etan** Pintxo afaria
- 23:30etan** Dantzaldia BIZPHIRU taldearekin
Ondoren musika

Irailak 10

- 12:00etan** Pilota partiduak Arotzenean
- 14:00etan** Herriko bazkaria
- 17:00etan** Puzgarria
- 17:30etan** Mus txapelketa
- 18:30etan** Dantza tailerra

ARRUIZKO FESTAK

Irailak 22

- 19:00etan Txupinazoa eta jaien hasiera
- 20:00etan Erronda afaria

Irailak 23

- 11:30etan Erronda
- 17:30etan Puzgarriak eta umeentzako jolasak
- 19:00etan Musika Martinekin
- 19:00etan Musa
- 00:00etan DJ Wes

Irailak 24

- 12:00etan Erronda
- 17:00etan Pilota partidak
Musika Martinekin

UITZIKO FESTAK

Irailak 28

- 19:00etan** Txupinazoa, ondoren tortilla patata txapelketa

Irailak 29

- 10:00etan** Aurora musikaz alaitua
- 12:00etan** Aizkolarik herriko plazan
- 13:00etan** Erronda Eztanda txarangaz alaitua.
- 20:00etan** Dantzaldia Dj Oixanirekin dantzalekun
- 22:00etan** Aparie Merkualde elkartean
- 00:00etan** Dantzaldia Gabezin taldearekin, ondoren Dj Oixani dantzalekun.

Irailak 30

- 12:00etan** Mus txapelketa Merkualde elkartean, aurretik gosaria.
- 14:00etan** Bazkaria Merkualde elkartean.
- 16:00etan** aurrera puzgarriak herriko plazan.
- 17:00etan** Pala partida herriko plazan.
- 20:00etan** Dantzaldia Dj Oixanirekin dantzalekun.
- 22:00etan** Herri aparie Merkualde elkartean.
- 00:00etan** Dantzaldia Dj Bambolakin dantzalekun.

Urriak 1

- 10:00etan** Diana txistulariekin, herritik zehar.
- 11:00etan** Puzgarriak, herriko plazan.
- 12:00etan** Haurren arteko herri kirolak.
- 16:00etan** Puzgarriak herriko plazan.
- 17:00etan** Umeen jokuak.
- 19:00etan** Dantzaldia Dj Oixanirekin dantzalekun.
- 22:00etan** Pikoteoa merkualde elkartean.
- 00:00etan** Denok lotara.

BARAIBARKO FESTAK

Irailak 29 (SAN MIGEL)

- 10:00etan** Festa hasiera
- 11:00etan** Meza nagusia
- 12:00etan** Hamaiketakoa
- 13:00etan** Aizkolaria: Ibai Soroa, Txomin Amundarain, Eneko Saralegi eta Julen Olano
- 16:00etan** Pilota partiduak
- 18:00etan** Puzgarriak
- 20:30etan** Barrikotea

Irailak 30

- 11:00etan** Etxez etxeko erronda Ane Etxezarreta eta Ekhi Iribarria trikitilari eta Julio Soto eta Amets Arzallus bertsulariekin
- 17:00etan** Puzgarriak
- 21:00etan** Zezen suzkoa
- 21:30etan** Herri afaria eta bingoa
- 00:30etan** TRIKITEENS

Urriak 1

- 11:00etan** Meza nagusia
- 12:30etan** Kakaplasta lehiaketa 2.0
- 17:00etan** Mus txapelketa
- 17:00etan** Tor magoa
- 18:00etan** Txokolatada
- 19:00etan** Puzgarriak
- 21:00etan** Zezen-suzkoa
- Festa amaiera**